



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

0. AZALA

Konturatuko zinen zenbaki guztietako azalean bunbuilo bat agertzen dela orriaren goialdean! Bada, oraingo honetan, bunbuilo hori erabiliko duzu haurra aldizkarian murgiltzeko. Hona hemen zer egin beharko duzun:

Hartu aldizkaria, eta estali bunbuiloa zerbaitekin; bertan idatzirik ageri dena ezkutatu beharko duzu.

Gero, eskaini haurrari aldizkaria, eta eskatu esan dezala, bunbuiloari begiratuta, bere ustez zer esaldi ageri den bunbuiloan. Bota ditzala lasai bere proposamenak. Behin botata, eskatu haurrari estalkia kentzeko eta ageri dena irakurtzeko. Ea antzik baduen hark esandakoak eta agertzen denak...

Jarraian, komentatu azala... Zer gertatzen da? Zertan ari dira?

1. HAZI HEZI

Informazio asko daukagu orri honetan.

Alde batetik, Hazi Hezi: galdetu haurrari ea badakien zer den. Ez badaki, erakuts eta azal iezaiozu, zuk dakizunarekin eta bertako irudiez eta hitzez baliatuz...

Gero, Hik Hasi aldizkariari buruz hitz egin. Hik Hasiri buruz, Interneten ere aurki dezakezue informazio ugari. Informazioa ahoz adierazi ondoren, Interneten ageri den horretaz ere balia zaitezke.

Nahi izanez gero, Hik Hasiren helbidea ere orrian bertan duzue.



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

Amaitzeko, aukeratu orri horretan irakurri duzuen informaziorik interesgarriena, eta irakurri berriz ozenki!

2. AURKIBIDEA

Atal honetan, eskuinaldeko testutxoa da bereziki polita... Gure proposamena da zuk zeuk irakurtzea haurrari testutxoa, eta, amaitzean, irakurritakoari buruz hitz egin eta solasean aritzea:

- Zer dio testuak jaiotzari buruz? Zer iruditzen zaizu zuri dioen hori?
- Zer dio haurren jaiotzaren inguruan? Zer dakizu zuk horri buruz? Momentu honetan, utzi haurra lasai hizketan, dakien horri buruz. Ea zer kontatzen dizun.

3. PUPU ETA LORE

Gure komikitxoan, kantuan egitea proposatzen dizuegu. Horretarako, abesti polit baten melodia aukeratu beharko duzue, eta, amaitzean, aukeratu zeinek zer irakurriko duen; izan ere, elkarrekin irakurri beharko baituzue...

Egin kantuan, eta informatu eta irakurri jaiotzari buruz!



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

4. PIRRITX , PORROTX ETA MARIMOTOTS

Istoriotxo hau irakurtzeko, jolas dibertigarria proposatzen dizuegu. Egia esan, ez dakigu zenbateraino ulertu ahal izango duzuen testua modu honetara, baina zalantzarik ez dugu ondo pasatuko duzuela!

Istoria bion artean irakurri beharko duzue; beraz, zuen esku gelditzen da nork zer eta zenbat irakurriko duen...

Dena dela, berezitasun bat izango da: testua atzekoz aurrera irakurri beharko duzu.

Ea, ba, jolastu gaitezen!!!

5. TIRITAXO

Entzumenaren inguruan hitz egitera datorkigu Tiritatxo oraingo honetan. Gauza interesgarri asko kontatzen dizkigu!

Hona gure proposamena: isilean eta bion artean irakurri beharko duzue testutxoa, eta, amaitzean, bakoitzak aukeratu beharko du zer gustatu zaion gehien irakurri duen informazio horretatik, baina besteari ez dio esango zer aukeratu duen... Biok informazio bat aukeraturik daukazuela, asmatu egin beharko duzue bata eta besteak zer aukeratu duzuen.

Asmakizunaren jokoa aurrera eramateko, galderak egin beharko dizkiozue elkarri:



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

- Informazioa espazioari buruzkoa da?
- Entzumen sistemari buruz hitz egiten du?

6. MARIMATRAKAK

Istorio honekin jolasteko, hauxe proposatzen dizuegu:

Zuk irakurri beharko diozu haurrari testua. Hala ere, ez da irakurketa normala izango, ez horixe!

Haurrak asmatu egin beharko du istorioa zeri buruzkoa den... Eta, horretarako, ez diozu kolpean irakurriko testua... Poliki-poliki irakurri beharko diozu haurrari. Puntu eta koma bat agertzen den bakoitzean, gelditu egingo zara, eta haurrari galdetuko diozu ea imajinatzen duen zeri buruz ari den... Eta horrela, irakurtzen amaitu arte!

7. BARATZE URBANOA

Baratzeko bihurri pareak Neguan gertatzen diren “ezbeharrei” aurre egiteko emandako gomendioak irakurriko ditugu orain!

Gure proposamena da gomendioak irakurri eta, gehien gustatzen zaizuen aukeratu ostean, praktikara eramatea!

Gogoratu: egiten duzuen guztiari argazkia atera eta gurekin konparti dezakezue!

Gozatu!



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Lau testutxo hauekin irakurketa dibertigarria egiteko, zera egin dezakezue:

Irakurri denak (nahi duzuen eran), eta, behin irakurrita, aukeratu gustukoena, eta behin eta berriz irakurri, irakurketa zoragarri polita egitea lortu arte!

Hori lortutakoan familiakoen aurrean ozen irakurtzea proposatzen dizuegu!

Ondo pasa, mahaspasa!

9. LAGUN

“Irakurketa zoroari” emango diogu tartea:

- Zertan datza? Irakurketa konpartituko dugu, hau da, txandaka irakurriko dugu.
- Bitarte horretan irakurriko ditugun hitzen bokalak beste batekin ordezkatzeko ditugu; adibidez, “e” bokala “a” bokalarekin. Zuek erabaki nola ordezkatzeko dituzuen.
- Irakurketa amaitzeko eta zerbait ulertu duzuen edo ez ziurtatzeko, orri batean idatziko dugu, labur-labur, zer ulertu dugun. Lagundu haurrei!

EA BA BERDIN ULERTU DUZUEN IRAKURRITAKOA!



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

10. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK

Euskal Herriko Animalien atalean, hemengo hainbat animaliaaren informazioa jaso ahal izango dugu. Jakina da irakurtzen ditugun testuetako zenbait hitz ezezagun, arraro, ezberdin egiten zaizkigula, ezta? Gure proposamena, hauxe:

- Hitz bilduma bat osatzen hastea edo osatzen jarraitzea.
- Horretarako, multzo batzuk osatuko ditugu:

1. Hitz arraroak.
2. Hitz ezezagunak.
3. Ekintza adierazten dutenak.
4. "Nolakoa?" galderari erantzuten diotenak.
5. ...

11. FILOSOFO TXIKIAK

Gure filosofo txikiek beti darabilte zerbait esku artean. Oraingo honetan, nagusia izatea zer den, horixe jartzen dute eztabaidan.

Atal honetan, komikia irakurri ondoren, hau egitea proposatzen dizuegu:

- Irakurri komikia.



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

- Hartu asteko bi gau.
- Gau bakoitzean, komikiaren zati bat irakurriko duzue.
- Hau da, lehenengo gauean, 23. orrialdea irakurriko duzue, eta haurrari galdetu: Zer da zuretzat nagusia izatea? Bigarren gauean, berriz, irakurri hurrengo orrialdea, eta egin iezaiozu galdera hau: zein ondorio atera ditu gure Txerrik?

12. MARTIN BERTSO

Jarraian, detektibe lanak egiteko parada eskainiko dizuegu. Martin Bertsorena irakurri ondoren, hau egingo dugu:

- Orri zuri batean, detektibe lanak egiteko lupa bat marraztu eta moztuko dugu.
- Gero, puntu hauek zehaztuko ditugu:
 - Komikian zein den protagonista.
 - Zer gertatu den.
 - ...
- Puntuak jarri ondoren, hartu komikia berriz, eta, lupa esku artean duzuela, ea gai zareten jarritako puntuei erantzuna emateko.



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

13. MARIKALANBRE

Oraingo honetan ere, Largabistak ez du galdu aukera bere jakituria besteekin konpartitzeko. Hiztegia zertxobait lantzeko, jolas bat antolatuko dugu.

- Azpimarratu komikian dauden hitz batzuk.
- Irakurtzen ari zareten bitartean azpimarratutako hitzetara iristean, sinonimo bat asmatu behako duzue, hau da, gauza bera esan nahi duen beste hitz bat.
- Kontuan izan haurraren adina, eta eskaini laguntza, behar den guztietan.
- Amaitzeko, egin galdera hau: Maite denari etortzen eta joaten utzi behar zaio?

14. LARGABISTA

Oraingo honetan, zera proposatzen dizugu komikia irakurtzeko:

- Estali komikiaren irudiak, eta irakurri irudiak ikusi gabe.
- Irakurri, nahi duzuen bezala: bion artean, haurrak bakarrik, etxeko besteren batekin... Errespetatu ikurrak eta intonazioa.
- Komikia irakurri ondoren, jarri martxan zuen irudimena, lagunok: hartu bakoitzak orri zuri bat, eta irudikatu, marrazki bidez, irakurri duzuen guztia.

Seguru gaude marrazki izugarri eder eta polita egingo duela!



ONGI ETORRI
IRRI BERRIAK

15. HAUR KANTAK

Jarri zuen ahots kordak martxan!

- Lehendabiziko kanta abestu aurretik, estali esaldi guztiak, idatzi orri zuri batean, eta moztu esaldi bakoitza. Gero, esan haurrari esaldiak ordenatzeko.
Amaitzeko, abestu eta dantzan egin ezazue!
- Bigarrenko kantara iristean, hau egin dezakegu:
 - Banatu pertsonaiak. Zein izango da otsoa?
 - Gero, abestu kanta!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Jarrai dezagun irakurtzen. Orain ere, irakurri ondoren egiteko moduko jolas bat proposatzen dugu:

- Hautatu gako hitzak. Lagundu haurrei gako hitzak aurkitzen!
- Jarri hitz horiek beste orri batean idatzita.
- Ea nork aurkitzen dituen azkarrago.
- Amaitzeko, hartu tartetxo bat hitz horien gainean gogoeta egiteko. Adibidez, behar berezien inguruan, zein da zuen iritzia?